

# KANBOKO HERRI BILTZARRAREN 2017KO OTSAILAREN 20KO BILKURA

Herri Biltzarra herriko etxean bildu da, Vincent BRU auzapezaren lehendakaritzapean, 2017ko otsailaren 20an, astelehenarekin, 20 orenetan.

Bertan ziren: Vincent Bru j., auzapeza, Bernadette Jougleux and., Christian Devèze j., Eliane Noblia and., Frédéric Bardin j., Pascale Lespade and., Didier Irastorza j., Eliane Aizpuru and., Henri Saint Jean j., auzapezordeak, Vincent Goytino j., Christiane Hargain-Despéries and., Patrice Dor j., Yolande Huguenard and., Jean-Jacques Lassus j., Jean-Noël Magis j., Peio Etchelecu j., Maryannick Hirigoyen and., Roger Barbier j., Carmen Gonzalez and., Véronique Larronde and., Camille Jenvrin and., Argitxu Hiriart-Urruty and., Philippe Bacardatz j., Nathalie Aïçaguerre and., Pantxo Michelena j., herri kontseilariak.

Ezin bertaratuak: Anne-Marie Pontacq and., Argitxu Hirigoyen and., Corinne Othatecguy and., Pascal Bourguet j., herri kontseilariak

Ahalordeak: Anne-Marie Pontacq andreak Christian Devèze jaunari, Argitxu Hirigoyen andreak Vincent Goytino jaunari, Corinne Othatecguy andreak Eliane Noblia andreak, Pascal Bourguet jaunak Jean-Noël Magis jaunari.

## **1 – Bilkura idazkaria izendatzea.**

Bertaratuek, **aho batez**, Véronique Larronde andrea hautatu dute bilkura idazkari.

## **2 – Azken bilkura agiria onartzea.**

Auzapez jaunak herri biltzarkideei galdetu die ea erratekorik duten 2016ko abenduaren 26an egin zuten herri biltzarraren bilkuraren agiriari buruz.

Inork deus erran ez duenaz, aho batez onartu da azken bilkuraren agiria.

## **3 – Aurrekontu orientabideak.**

Auzapez jaunak erran du Nathalie Aïçaguerre andrearen mezu elektroniko bat jaso duela, oposizio taldearen izenean, erranez deialdian igorri zaizkien dokumentuen artean zenbait falta zitzaizkiela, bereziki, egiteko diren inbestimendu nagusien xehetasuna.

Lurralde kolektibitateen Kode Nagusiaren D 2312-3 artikularen 2016ko ekainaren 24ko 2016-841 Dekretuak agindurik, eta 2017ko aurrekontu orientabideetako eztabaidetarako hori aplikatzen den lehen aldia izaki, kontseilariei beste dokumentu zenbait eman behar zaie, besteak beste, funtzionamendu nola inbestimenduko gastu eta

diru sartzeen behin-behineko balioztapena, bai eta aurrekontu proiekturako atxiki hipotesiak, hau da, zuzkidurak, zergak, tarifak, etab...

Dokumentu horiek deialdiarekin eman ez zaizkienez, auzapezak dosierra gairerrendatik ken dadin proposatu du, hurrengo herri biltzarrerako utziz.

#### **4 – BASERRIALDEKO LURRALDEEN HORNIKETARAKO ZUZKIDURA 2017.**

Auzapez jaunak gogora ekarri du azken herri biltzarrean proposatu zela eskola bat eraiki zezaten Kanbo-Behereko eskola publikoaren aurrefabrikatuaren ordezt. Izan ere, aurrefabrikatu hori ez da oso helgarria eta ez da batere neurrikoa energiari daokionean. Horregatik nahi da jadanik bere denbora betea duen aurreprefabrikatu zahar horren ordezt eraikin berria eman. Egite horren kostua 253 000 € ZG da eta herriak Estatuari eskatuko dio laguntza, 2017ko Baserrialdeko Lurraldeen Horniketarako Zuzkiduraren izenean. Kolektibitatea, ahal den neurrian, bestelako laguntza osagarriak ere lortzen saiatuko da eta zehaztu du legebiltzarkideen erreserbarako eskea egiteko erabakia jadanik hartua dela.

Auzapezak dio herriak diru laguntza ahal bezain gora eskatuko duela, hau da, 88 550 €, zeina lanen ZG kopuruaren % 35ari baitagokio eta gogora ekarri du eskola eraikinak lehentasunezkoak direla.

Aicaguerre andreak galdetu du ea Herriak Departamendu Kontseiluari eskatuko ote dion laguntzarik.

Auzapez jaunak ezetz erran dio, proiektu hori ez baita lurralde kontratuan eta, hemendik goiti, erregimen berria aplikatuko da proiektu deialdiekin. Departamenduak gastu handiagoak ditu egiteko, noski, eta proiektu hau ez da Departamenduari eska daitekeenetarik, Kanbo bezalako herrien kasuan.

Aicaguerre andrea Kanbo-Behereko eskola ikustera joan omen da eta frontoia bazela ikusi omen du. Frontoia euskal eskola guztietan garrantzia duen elementua da eta egiteko den projektuan frontoia sartuko ote duten galdetu du.

Auzapezak erantzun dio frontoia eta jolastokia atxikiko dituztela.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

#### **5 – San Laurendi eliza: eraikinaren zaharberritzea – Lanen 1. zatia.**

Auzapez jaunak gogora ekarri du iragan irailaz geroztik, Kanboko San Laurendi eliza Monumentu Historikotzat sailkatua dela eta horrek aukera ematen duela aspaldi aurreikusitako ziren lanak egiteari ekiteko, Herriko Etxea sailkapen horren zain baitzen, laguntzak biltzeko. Kultura gaietarako Akitania Berriko Eskualde Zuzendaritzak ondarearen arkitektoa hauta dezagun gomendatu digu, eraikinaren azterketa egiten eta kanpoko nola barneko lanen kostua kalkulatzeko lagun diezagun. Kultura Zuzendaritzak gomendatu dizkigun hiru arkitektoetatik Matveieff andrea, ondarean espezialdua den

arkitektoa, hautatu dugu; bera arduratzen da, bestalde, departamenduan dauden beste zenbait eraikin sailkatuetaz.

Hemendik goiti sailkatua den eraikin horretarako lanak Akitania Berriko eskualde prefetaren agindu batek baimendu zituen 2016ko urriaren 21ean.

Lassus jauna biltzar aretora sartu da.

Matveieff andreak hiru lan zati aurreikusi omen ditu: lehenik ezkila dorrearen zaharberritzea, gero habeartearen kanpoko zaharberritzea, eta azkenik, elizaren barnearen eta atariaren zaharberritzea. Auzapez jaunak gaineratu du kanpoaldea barnealdea baino lehenago zaharberritzeko arrazoia barnealdea behar bezala aireztatzen uzten ez duen estaldura bat dela, eraikinaren barnera hezetasuna ekartzen baitu.

Kultura Zuzendaritzak iragan urtarrilean erran zigun, lanen lehen zatian, 200 000 € ZG den kostu osotik % 40eko laguntza hartuko dugula, hau da, 80 000 € eta kopuru horien gainean berriz erabaki dezagun eskatzen digu.

Auzapez jaunak ezkila dorrerako lanen lehen zati horretaz erabaki dezaten proposatu die hautetsiei; lanak 2017an egin litezke eta, diru kopurua 200 000 € ZG denez, jasoko duten diru laguntza, berriz, 80 000 € dela. Zehaztu du, horrekin batera, Akitania Berriko Eskualdeari eta Departamenduari lan horiek egiten herriari laguntzeko eskaria eginen zaiela.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea non idatzia den Departamenduarentzako laguntza eskaria.

Auzapez jaunak erantzun dio idatzia dela Herri Biltzarrari eskatzen zaiola onar ditzala, alde batetik, 200 000 € ZG balio duen lehen zatirako lanen programa, eta beste aldetik, Estatuaren diruztatze plana, bai eta, azkenik, Akitania Berriko Eskualdearen eta Departamenduaren laguntza eska dezala.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du zenbatekoa den herriak espero dezakeen laguntzaren kopurua.

Auzapez jaunak oraindik ez dakiela erantzun dio. Lehenik laguntza eskatu behar da, gero, orain arte Monumentu Historiko sailkatuetaz arduratzen ziren bi kolektibitateengana jo, hau da, Eskualdearengana eta Departamenduarengana.

Hiriart-Urruty andreak erran du Kanbo-Behereko proiektua ez bezala, honako hau ez dela inoiz aipatu. Azken Herri Biltzarrean «luze-zabal» aritu ziren elizaren berogailuaz, azken kostua egiazki ezagutzera heldu gabe.

Auzapez jaunak erantzun dio errana zutela eraikin horretan lanak eginen zirela. Elizara sartu besterik ez da hezetasunak margoetan egin dituen kalte handiak ikusteko. Zaharberritze hori kolektibitatearen nahia da, Monumentu Historiko sailkaturik den eraikin baterako. Kantoian, gurtze eraikin gehienak jadanik zaharberriturik dira, Ezpeletakoa, Zuraidekoa, Ainhoakoa, Itsasukoa, eta zorigaiztoki, Kanbokoa egoera oso txarrean da; aspaldi ez zaio konponketarik egin, salbu erretaulan. Lan horiek egin behar beharrezkoak dira, beraz, eta herriarentzat lehentasunezkoak.

Michelena jaunak galdetu du ea, 2. eta 3. Zatiatarako, kolektibitateak %40ko diru laguntza ukanen duenaren segurtasuna duen.

Auzapez jaunak baietz erantzun dio.

Bacardatz jaunak harriduraz entzun du eliza sailkatua izatearen zain izan dela Herria lanei ekiteko, bai eta lanen lehen zatian aurreikusia dela «ezkila dorreko tximistorratza, zanga egin eta bidea berregitea», hain zuzen ere eliza inguruko lanak bururatu berri direlarik. Zanga berria eginen omen da eta berriz bete eta bidea berriz eginen. Egin berri diren lanak berriz ere hautsiko dira, beraz.

Auzapez jaunak erantzun dio herriak ez duela maiz hausten egin berriak diren gauzak. Bide lan horien kostua 2 000 eurokoa besterik ez da eta ez da berriz ere berogailuaz mintzatuko, Kultura Zuzendaritzak jarrera aldatu du eta kolektibitatea haren erabakien mende da.

Bacardatz jaunak galdetu du ea berogailu lanak bazter utzi ote diren.

Auzapez jaunak erantzun dio berogailu lanak ez direla hiru lan zati horietan sartuak.

Bacardatz jaunak galdetu du ea berogailu sistema aldatuko duten.

Auzapez jaunak oraingo ez dakiela erantzun dio. Kultura Zuzendaritzarekin berriz biltzearen zain da.

Bacardatz jaunak espero du 2019rako aurreikusia den elizaren barnealdea berritzearekin batera berogailua ere berritzea erabakiko dela, egungo aireztatze sistemak hormak zikintzen baititu.

Auzapez jauna guztiz bat dator berarekin. Erantsi du eguneko puntua eliza dorrea dela eta ez berogailua.

Aiçaguerre andreak gogora ekarri dio berak errana zuela berogailua berandu baino lehen aldatu behar zela, egungo sistemak hormak zikindu zituela ikusi baitzuten.

Auzapez jaunak erantzun dio elizaren barneko zaharberritzea egiten ez den bitartean, herriak jarrai dezakeela berogailu hori erabiltzen. Erran duena guztiz koherente da, beraz. Elizaren barnealdea aurten zaharberritua izan balitz, berogailu sistema aldatu beharko zen. Orain ez da ezer hondatzen, jadanik hondatua baita.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoz onartua.

Abstentzioak: Hiriart-Urruty and., Bacardatz j., Aiçaguerre and., Bacardatz j.

## **6 – Donapetria bidearen zabaltzea: lursaila erosi eta jabari publikoan ematea.**

Bardin jaunak erran du Rey jaunak eta Rousset andreak toki erresebatua duen etxea erosi dutela. Herriak jabari publikora ekarriko du 77 m<sup>2</sup> zabal den toki erresebatu hori, aparkalekua egiteko.

Herri Biltzarrari eskatzen zaio bere iritzia eman dezan: Donapetria bidean den BO 276 lursail hori euro sinbolikoaren ordainez erosteaz eta jabari publikora ekartzeari dagokion galdeketa publikoa abiatzeaz. Zehaztu du gastu guztiak, hala akta nola geometra, eta galdeketa publikoa herriaren kargu izanen direla.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **7 – Herri bide baten zabaltzea: Hipotekak kitatzeaz salbuestea.**

Bardin jaunak erran du gaia Constant Colbert karrikaren zabaltzeari dagokiola, Landuziko bihurtuganean. Lursaila 17 m<sup>2</sup> zabal da eta jadanik jabari publikora ekarria da, baina bi hipoteka ditu; horietako bat aurten bururatzen da eta bestea 2019an. Azken hipoteka horren kopurua 7 700 € baino txikiagoa da eta, Landuzi establimenduak kopuru hori ordaindu behar ez dezan, Herri Biltzarrak, Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiaren R.2241-7 artikulua dioena baliatuz, erabaki dezake interesatua salbuestea kitatzeko betebeharrak egitetik. Herri Biltzarrari, horren gainean erabaki dezan eskatu dio.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **8 – Agorreta etxemultzoa: bideen izenak.**

Jougleux andreak gogora ekarri du 1998ko urtarrilaren 29an, hau da, iragan mendean, hiru bide izen aurreikusi zituztela Agorreta etxemultzoko karrikak izendatzeko: Montaut karrika, Xoko karrika eta Haltzen karrika. Honengatik edo hargatik, panelak ez dira inoiz eman ez eta hornitzaileei eskatu ere. Egun, Herriak izendapenei ekin nahi die berriz. Horretarako, etxemultzoko jabeak bildu dira eta Haltzen karrika ez omen zaie egoki. Hartara, Haltzen karrika izan ordez, Agorreta karrika deituko da. Herri Biltzarrari bide izen horiek bali egin ditzan eskatu zaio.

Auzapez jaunak zehaztu du interes gehien dutenak, hau da, bertako biztanleak, ados direla.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **9 – Ehorzketa emakida: kategoria berriak sortzea.**

Auzapez jaunak gogora ekarri du Herriak, hilerrian, hainbat iraupeneko emakidak dituela: gehienez hamabost urterako direnak, hogeita hamar urtekoak, berrogeita hamar urtekoak edo betierekoak. Gaur ikusi behar dugu, zoritxarrez gertakari batek erakutsi baitigu horren beharra izan zitekeela, haur ttipi-ttipien hilkutxak hartzearen kasua. Oraingoz ez da ezer erabaki haur ttipi-ttipien ehorztez, eta nini horiek ez dira beti familien hilobietan kokatzekoak, hainbat arrazoiengatik: gurasoek ez dutelako familia hilobirik eta ez dute halakorik hartu nahi; hilobia badute baina adin ttipi-ttipiko hil horien oroitzeko, hilerrian leku berezia eman behar dela uste dutelako, edo gurasoek ez dutelako hilobia erosteko edo familia emakida hartzeko adina dirurik, baina hilkutxa herriko hilerrian koka dadin nahi lukete.

Erantsi du hilik sortu niniak eta nini ttipi-ttipiak direla erabaki honen gaia.

Herri Biltzarrari proposatu zaio, beraz, alde batetik, orain arte ez dauden hiru ehorzte emakida kategoria sor ditzan: - lur hutseko emakida, hamabost urte berrigarrietarako, 1 m<sup>2</sup> zabal, «aingeru gune» deitua, 50 eurotan; - lur hutseko emakida, hogeita hamar urte berrigarrietarako, 1 m<sup>2</sup> zabal, 100 eurotan, - lur hutseko emakida, hogeita hamar urte berrigarrietarako, 2 m<sup>2</sup> zabal, 380 eurotan.

Auzapez jaunak zehaztu du Patrick Peña jaunak Baiona hiriaren eredia segitu duela, bai azaldu berri duen moldea proposatzeko bai eta tarifetarako ere. Erantsi du erabakia hartu behar dela, familiei halakoak gertatzen zaizkienean, Herriak erantzun behar baitie espero dutenari.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **10 – Igerilekua: diru sartzeen bilketa administrazioaren hestea.**

Lespade andreak gogora ekarri du 2008ko otsailaren 23ko deliberamendu batez, Herri Biltzarrak diru sartzeen bilketa administrazio bat sortzea erabaki zuela igerilekuaren diru sartzeak biltzeko.

Ur ekipamenduen eskumena Errobi Herri Elkargoari eskualdatu zaionez, 2016ko urriaren 3ko deliberamendu batez, diru sartze haietarako sortu diru bilketa administrazioa hetsi behar da. Herri Biltzarrari igerilekuaren diru sartzeen biltzeko administrazioa hetsi dezan eta auzapez jaunari horretarako agindua sina dezan baimena eman diezaion proposatu zaio.

Auzapez jaunak zehaztu du aski logiko dirudiela, zeren igerilekua jadanik ez duenez Herriak kudeatzen, ezin du Herriak administratzailek ukan.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **11 – Diruzaintzaren kontulariaren aholkularitza ordainsaria.**

Auzapez jaunak erran du 1982ko dekretu batek zehazten dituela herriek eta erakunde publikoek Estatuaren kanpo zerbitzuetako langileei eta bereziki Diruzaintzaren kontulariari ordainsariak emateko baldintzak. Kanbo Herriak hainbat

aldiz eztabaidatu du udal diru-biltzailearen aholkularitzaren ordainsari hori erabakitzeke. Chantal Martin andreak 2016ko abenduaren 31n utzi zuen bere egitekoa eta beste herri zenbaitek bezalaxe, Kanbo Herriak ere ez daki zergatik eman beharko liokeen ordainsaririk Estatuaren funtzionario bati. Lehen bazuen zentzurik, udal diru biltzaileak kudeaketa aholkuak ematen zizkielako Herriei; Carrière andreak eta Martin andreak, beren garaian, gure herriaren diruzko egoerari buruzko azterketa egin zuten, baina, aldi berean, herri askorentzat ez zen batere normal, batez ere, Estatuak erruz murriztu duelarik lurralde kolektibitateentzako diru laguntzak.

Auzapez jaunak erantsi du Estatuak urtean 240 000 € inguru kentzen diola eta, aldi berean, Herriak Estatuaren funtzionarioei ordaindu behar die, Estatuaren soldata jasotzen dutelarik jadanik. Diru-biltzailez aldatu dugularik, garai egokia dugu orain ordainsari horrekin bukatzeko. Zehaztu du ordainsari hori aurrekontu bakoitzean ordaintzen dela.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak baieztatu du ordainsari hori azken hiru ekitaldietan egin gastuen arabera zor dela.

Auzapez jaunak erantsi du diru biltzaile zenbaitek sindikatu bakoitzari hartzen diotela ordainsari hori: URA, euskararen sostengatzekoa, Euskararen Erakunde Publikoa, etab...; iruditzen zaio Estatuak behar dituela bere funtzionarioak ordaindu eta ez Herriek. Herri Elkargo zen hartan ziren herrietako auzapezak guztiz ados dira ideia horrekin.

Michelena jaunak erantsi du pozgarri zaiola auzapez jaunari entzutea bere taldeak iaz jadanik erran zuen bergauza, iaz aurka bozkatu baitzuten.

Auzapez jaunak erantzun dio arrazoi zuela aurka bozkatur; ados da erabat.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **12 – Langilegoa: lanpostuen sortzea.**

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erran du baditugula, alde batetik, Errecart jauna erretretara doanez eta zerbitzua berrantolatzen denez, teknikari laguntzaile lanpostu iraunkor oso baten sortzea, egungo taldea osatzeko, eta beste aldetik, sasoirako bi lanpostu sortzea, bat mediatekarako, 2017ko uztailean, eta Arnagan laguntzeko bestea, bisitarien kopurua etengabe emendatzen ari baita, lau hilabetetarako, 2017ko ekainaren lehenetik irailaren 30era.

Aiçaguerre andreak galdetu du ea Batzorde Tekniko Parekidearen iritzia galdetu den zerbitzuak berrantolatzeko.

Zerbitzuen zuzendari nagusiak erantzun dio lanpostu sortze hori oraindik egin ez den zerbitzu berrantolaketa baterako dela, langile berria ez baita oraindik kontratatua izan, eta batzorde teknikoari iritzia eman dezan eskatuko zaiola, noski.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

### **13 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.**

Auzapez jaunak erran du Herri Biltzar bakoitzean eskatzen zaiola zertan erabili dituen Herri Biltzarrak, Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiaren arabera eman dion ordezkariak. Zehaztu du bi alorretan ari dadin dela ordezkariak hori eta horietako bat 2017an desagertuko dela. Lehentasunez erosteko eskubidea baliatzeko aukera desagertuko da, Herriari, batez ere U zonetan, ondasun baten eroslearen ordezkari erosteko aukera ematen diona, gehienetan saltzaileak ezarri prezio berean. Horretaz mintzo den azken aldia da, beraz, 2017ko urtarrilaren lehenetik goiti lehentasunez erosteko eskubide hori Euskal Elkargoak erabiliko baitu.

1.) Hiri ondasunak lehentasunez erosteko eskubidea ez erabiltzeko erabakiak, 2016ko azaroaren 19tik 2017ko abenduaren 31ra:

- Lursailak: 6
- Etxeak: 3
- Apartamentuak: 1
- Eraikinak: 0
- Sozietate zatiak: 1
- Sotoak: 0

2.) Hilerrian emakidak eman edo berreskuratzeari buruzko erabakiak, 2016ko azaroaren 19tik 2017ko otsailaren 3ra:

- 15 urterako emakiden erosketak: 1
- 30 urterako emakiden erosketak (+ hilobiak): 1
- 30 urterako emakiden erosketak (+ hauts kutxategiak): 5
- 15 urterako emakiden berritzea: 3
- 30 urterako emakiden berritzea (hilobiak): 4
- Urririkako lurren berreskuratzea: 5

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea Herriari jakinaraziko zaion Kanbon lurrik salgai izanen denean.

Auzapez jaunak erantzun dio Euskal Elkargoak erabiliko duela, hemendik goiti, lehentasunez erosteko eskubide hori. Elkargoaren lehendakaria Herriaren iritzia kontuan hartzea engaiatu da. Auzapez jaunak ez du, beraz, horren gaineko konturik eman beharra, dagoeneko ez baitu eskumen hori. Dossier gehienei ezezko iritzia emanen die, baina noizbait zerbait erosteko interesik balu, orduan, lehentasunez erosteko eskubidea baliatu nahia Herri Biltzarrak eta ez berak erran dezan nahiko luke.

### **14 – Hainbat gai.**

- Auzapez jaunak gogora ekarri du aurrekontuaren egutegia zertxobait aldatu dela, bilkura hastapenean adierazi duen bezala; Finantzen Batzordea otsailaren 27an, astelehenarekin, 18 orenetan bilduko da, Christian Devèze finantzen auzapezordearen lehendakaritzapean; martxoaren 6an, astelehenarekin, 19



orenetan, administrazio kontuen eta aurrekontu orientabideen eztabaidaren azterketa eginen da; 2017ko martxoaren 27an, astelehenarekin, 20 orenetan, 2017ko hastapeneko aurrekontuen bozketa. Hiru aurrekontuak aztertuko ditu Herri Biltzarrak eta onartzea ala ez erabakiko du.

- Auzapez jaunak zerbait erran nahi luke SUDMINE enpresak egin duen «Kanbo baimen» deitua den baimen eskeari buruz. Harriturik baita dosierra berriz ere agertzen ikusirik, aurkako iritzi anitz baitzuen proiektuak, besteak beste prefetarena, Laborantza Ministerioarena, Ekologia Ministerioarena, bai eta, bereziki, laborantzaren ordezkari diren laborantza erakunde ororenak, eta lurraldeko sormarken elkartenak, guztiak baimen horren aurka agertu baitira. Ezpeletan egin den manifestaziora jende anitz bildu da eta euskal paisaiak hondatuko lituzkeen, laborantza zalantzan jarriko lukeen, ura ere –baita edateko ura eta, era berean, ur termalen kalitatea, Kanboko herriari dagokionean-, hondatuko lukeen horren aurka azaldu. Arrazoi horiengatik guztiengatik, Herriak proiektuaren aurka agertu nahi du eta aurka direnak sostengatzen ditu. Euskal Elkargoaren lehendakariak gutun bat idatzi dio, jadanik, Industria Ministerioari, auzapez jaunari oso-oso zehatza iruditu zaiona, zeinaren bidez lehendakariak ministroari erraten baitio otsailaren 24an Elkargo Kontseiluak eginen duen hurrengo bilkuran eskatuko diola kontseiluari horren gaineko deliberamendua egin dezan. Auzapez jaunak galdetu du ea Kanboko Herriak ez lukeen halako deliberamendu bat egin behar, martxoaren 6an eginen duen hurrengo bilkuran. Halatan bada, proposatuko duen deliberamenduaren testua igortzea proposatu da; Euskal Elkargoaren lehendakariaren gutunaren kopia da ia testu hori; heldu den martxoaren 6an deliberamendu bat manera serio sago batez har dezaten proposatu du ere.
- Irastorza jaunak gogora ekarri du Essor Basque delakoaren lasterraldia eguraldi txarragatik bazter utzia izan dela egun horretan. Mendekoste egunean, hau da, datorren ekainaren 5ean, eginen da lasterraldia. Hasiera batean aurreikusia zen etapa bera eginen da, hau da, Akamarre-Kanbo.

Aiçaguerre andreak galdetu du ea talde berak arituko ote diren.

Auzapez jaunak ezetz erantzun dio.

Auzapez jaunak Aiçaguerre andreari eman dio hitza, posta elektronikoz egin dituen galdeak azal ditzan.

- Aiçaguerre andreak erran du hainbat aldiz deliberatu duela Herri Biltzarrak, auzapez jaunari Herriaren interesen alde auzitara jotzeko baimena ematea. Bere taldeak dossier horiek ekarri dutenaren berri jakin nahi du. Bigarren gaia «Tillac» lursailaren erosketari buruzkoa da, horretarako laguntza funtsen eskaria egin baita. Bere taldeak jakin nahi luke ea erosketa bururatu den ala laguntza funts horren ezeztatzeko beste deliberamendua behar den.

Auzapez jaunak erantzun dio, lehen puntuari dagokionean, argi dela auzitara jotzeko auzapezak baduela Herri Biltzarrak eman ordezkaritza, baina jurisprudentzia gero eta punttalakurloago dela eta nahiago duela auzi bakoitzerako Herri Biltzarraren deliberamendua jaso, horrek bermea ematen baitio auzitara jotzeko auzapezak duen ahalari dagokionean. Horregatik egin du Herri Biltzarrak horretarako deliberamendu zenbait.

Auzapez jaunak emaitzak ekar ditzake biltzarrera, baina ez luke gai pertsonalak herri biltzarrean aipa daitezen nahi. Hartara, auzien emaitza emanen duela proposatzen du, baina xehetasunetan sartu gabe, prozedura zertan den azalduz; oposizioko kideek auziari berari buruzko xehetasunak nahi badituzte, zerbitzuen zuzendari nagusiarengana jo dezaten proposatu die. Ez baitu uste Herri Biltzarraren bilkura publiko batean eman daitezkeenik pertsonen izenak eta beste xehetasunak.

Lehen auzia hirigintza baimenik gabeko eraikuntza bat da; auzia 2017ko otsailaren 2an ikusi da eta pertsonari 2 000 euroko isuna eta lekua lehengo egoerara ekarri beharra ezarri zaio, 2000 euroko isun batekin, ekintza zibilean, Kanboko herriak jasan duen kaltearengatik.

Bigarren auzia taldean ebasten ibilitako adin txikiko baten lasua da; epaia haurren auzitegiak eman zuen, interesdunak hel egin zuen eta gero utzi du. Hartara, auzia konpondua da.

Hirugarren auzia hirigintzako da, berriz ere, eraikitzeke eman zen baimenari ez egokitzeagatik. Epaia emana izan da eta pertsonari isuna jarri zaio eta egoki ez zen elementua egokitzera behartua izan da, bai eta herriari 3 000 € ordaintzera kalteordain eta interesengatik. Hel egingen du, beharbada, baina momentuz ez da halakorik izan.

Laugarren auzia Herriak laborari aritzeko asmoa zuen gazte bati eman baimenari buruzkoa da, prefetak iritzi baitzuen pertsona hori ez zela egiazki laborari, Herriak hori frogatzen zuten dokumentuak bazituen ere. Oraingoz ez da epairik.

Bosgarren auzia hondakineterako eta sailkapenerako edukiontzia kokatzeko baimena eskatu zuen pertsona bati buruzkoa da; auzokoak bere etxeari kalte egiten ziola uste zuen; kalitate handiko karrika batean baitzen, baimena Arkitektura eta Ondarearen Balioa Zabaltzeko Gunearen aurkakoa zela iruditzen zitzaion, baina herriak ez du halako gunerik. Pertsona horrek bi ekintza egin ditu, bat presazko errekurtsu moldean, laster egiteagatik, eta ez diote onartu. Bigarren ekintzari dagokionean, dosierra ez da oraindik epaitua, baina halako kasu gehienetan, premiazko errekurtsuen epaileak legez kontrakoa ez dela erraten duenean, mamia epaitzen duen epaileak erabaki berdina hartu ohi du.

Seigarren auzia hirigintzari buruzkoa da, laborantza eraikin bat bizitegi bilakatu duen pertsona baten aurka; dosierra instrukzio bidean da.

Azken dosierra Herriaren langile izan zen batekin dugun auzia da eta oraindik ez dugu epairik, gibelatu baita.

Mikel Garikoitz deunaren karrikaren eta Jean Rumeau karrikaren arteko kantoian den lursailari buruzko galderari dagokionean, Herriak lursail horren zati bat erosi nahi zuen, Herriaren proiektuak egiteko. Proiektu hori Errobiko Herri Elkargoa zenaren laguntza funtsetan sartua zen. Herriak lursailaren jabearen 2016ko abenduaren 26ko data duen gutun bat jaso du: «Auzapez jaun hori, Kanbon dudan lursailaren zati bat (4 573 m<sup>2</sup>) erosteko egin zenidan proposamena dela, eta medikuntzako establimentu batek beste zatia erosteko proposamena beste aldetik dudala, salmenta bikoitz horretan ados naizela erratera natorkizu, betiere, bat besteari loturik direlarik, honako saltze prezio garbi hauetan: 704 682 € herriaren kargu eta 243 318 € erakunde pribatuaren kargu. Zure erranetara nauzu, salmenta agiriak gauza ditzagun».

Herriak 700 000 eurotan balioztatua zuen gastua eta jabeari jabariaren erakundeak azalaren arabera egin balioztatpena aplikatu dadin proposatu dio.

Auzapez jaunak Euskal Elkargoaren laguntza funtsak jasoko dituela espero du, elkargoa horren kargu hartzera engaiatu baita eta eskariak elkargoari eramaten dizkion lurralde poloari igorri zaio dosierra.

Herriak lursailaren zati handiena erosiko du eta aurrikusia zen laguntza funtsa jasoko du, hau da, prezioaren % 50. Auzapez jaunaren ustez, Herriak ez du batere negoziotxo txarra egiten.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea gehiago jakin daitekeen lursail horretarako den proiektuaz.

Auzapez jaunak ezetz erantzun dio.

- Hiriart-Urruty andreak THParen berrazterketarako egutegia ezagutu nahi luke.

Bardin jaunak erantzun dio, oraingoz, lan bilkura bat egiteko dela, horri loturiko jendeekin. Bilkura horretarako deialdia Errobiko Herri Elkargoak egin zuen, 2016ko abenduaren 31 baino lehen programatu baitzen, baina hemendik goiti Euskal Elkargoak eginen ditu deialdiak.

Gaur egun, zonaketa bururatua izateko bidean da eta martxoaren amaierako bururatua izanen da; araudia ere bururatua izateko hirian da eta martxoaren 20rako programatua den bilkurarako bururatuko da. Hirigintza batzordearen bilkura bat programatuko da bi puntu horiek aurkezteko.

Hiriart-Urruty andreak galdeketa publikoa noiz eginen den galdetu du.

Bardin jaunak ez daki zein data izanen den zehazki, baina bere ustez, ez da ekainaren amaia baino lehen eginen, gauzak onean joanik ere; iraila aldera edo eginen dela uste du.

Auzapez jaunak zehaztu du gaur egun testu aldaketak daudela, batez ere alokairu lagunduko bizitegiei dagokienez, hortik dator THP bat egiteko zailtasuna, joko arauak ezagutu gabe. Zenbait galdera zehatz-zehatzak egin dira eta arrapostua honako hau izan da: «jurisprudentiaren arabera da hori». Auzapez jaunak erantsi du zahar etxeei buruzko galdera egin duela, hau da, ea alokairu

lagunduko bizitegien artean zenbatuak ote ziren. Uztaritzeko auzapezak dio hirutik batean zenbatuak direla; Estatuak ez du, oraingoz, arraposturik eman. Bardin jaunak baieztatu du Estatuak eskualde mailan ikusi behar zela eta orain nazio mailan. Estatu arrapostuen zain omen da, berak ez daki.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du zein den alokairu lagunduko bizitegien gaineko dekretua.

Auzapez jaunak erantzun dio SRU legea dela, bi irizpidetan oin harturik: biztanleriarena, zeina 3 500 biztanleetara apaldu baita, eta hirigunetik zenbateraino bazter den. Bi baldintza horiek ematen badira, herriko bizitegi nagusien % 25 izan behar dira alokairu lagunduko bizitegi. % 25 horretara heltzeko, % 40 edota, batzuetan, % 50 ere eraiki behar dira, proiektu handien bidez, gibelamendua harrapatzeko eta kontuan hartuz bizitegi nagusiak ere gero eta gehiago direla beti. Adibide baterako, bizitegi bakarra duen eraikin bat lautan banatzen bada, baditugu hor lau bizitegi eta horrela aldea handitzen da. Auzapez jaunak zehaztu du errana zela herria Euskal Elkargoan sartzen zen unetik Kanbo SRU lege horren pean izanen zela eta orain arte, berriz, kolektibitateak biztanleriaren irizpidea betetzen zuen, baina hirigunearen mugatik hamabost kilometrotik haratago zen. Bestela erranez, Uztaritz lege horren pean zen, baina Kanbo ez. Euskal Hirigune Elkargo berrira sartzearekin, Estatuak errana zuen Kanbo arauaren pean izanen zela, eta kolektibitateak jakin berri du ezen, badirudi «berdintasun eta herritartasun» legearekin, legelariak puntu hori argitu duela, erran baitu hirigune hitza INSEE erakundearen zentzuan ulertu behar dela eta ez zentzu juridikoan. Bestela erranez, aplikazio dekretu bat eman behar zen maiatzan, non urraspide horretatik jalgitzen ziren herriak seinalatuko baitziren eta badirudi Hazparne eta Kanbotik oso hurbil izanen zela muga.

Bardin jaunak erantsi du Herriak ez duela bizitegi lagunduak egiteari buruzko politika aldatuko % 25era heltzeko.

Michelena jaunak erantsi du, testu ofizialetatik at, gizarte beharren gainean egin den azterketak erakusten duela eskaria arras emendatu dela eta Kanbon behar handiak ditugula. Bizitegi lagunduen programak egin beharko ditugu, orain arte egin ditugunak baino askoz handiagoak.

Bardin jaunak dio lehenik Hirigintza Batzordean eta gero Herri Biltzarrean aurkeztuko dugun araudian, bide hori hartu duela Herriak; gehiengoaren eta auzapezaren nahi politikoa da, berantaren zati bat bederen harrapatzeko.

Auzapez jaunak gogora ekarri du lurraldeko biztanleen % 70 baino gehiagok eska dezakeela alokairu lagunduko bizitegia; ez dira soilik gizartean arazo handitan diren jendeak; jende anitz sartzen da hor; hala erretretan diren jendeak nola bikote gazteak, dibortziatu direnak edo berrantolaturiko familiak ditugu bizitegiaren beharrean.

- Michelena jaunak herri aldizkarian euskarari utzi zaion leku tristea aipatu du. Karaktere tipografikoak ñiminoak dira, «ehorzketa» giroko hondo batetan idatzirik, irakurrezina egiteraino. Ez daki zergatik, honako honetan, orrialde guztiak egin diren horrela. Azken finean, hobe zatekeen batere izan ez balitz,

gainerakoa argiago izan zedin. Etorkizunean, euskarak frantsesaren leku berdina ukan dezan nahi luke, biak karaktere berdinez idatz daitezen eta berdina aurkez daitezen orrialdean.

Lassus jaunak erantzun dio, gris tonoa dela eta, beti izan dela horrela, araudi nagusiaren parte baita hori.

Michelena jaunak galdetu dio ea zein araudi nagusitaz ari den.

Lassus jaunak erantzun dio herri aldizkariaren araudiaz ari zaiola, zeinean ezarri baitzen frantsesaren eta euskararen arteko bereizketa hondoaren kolorearen bidez egiten dela. Frantsesa hondo zuriaren gainean egiten da eta euskara hondo grisean; ez da beste kolorerik aldizkariko hondoetan, berdintasuna behar da, baina kolorez alda ote daitekeen ikusiko du, beharbada.

Honako honetan, karaktereak ttipitu ditugu, bai, informazio anitz eman behar zelako, eta euskara ttipitu eta irakurtzeko gaitzago bada, zailtasunak dituztenek frantsesez irakur ditzazkeen testuak dira. Hala erabaki zen; ez zen beste erremediorik, non ez zuten orrialde kopurua arras emendatzen.

Auzapez jaunak galdetu du ea guztia elebitan ote den.

Lassus jaunak erantzun dio herri aldizkari osoa elebitan dela eta lehen aldikoz dituztela oraingoan karaktereak ttipitu; ez da, inondik ere, ohiko gauza, eta hala denaren froga duzue Michelena jaunak lehen aldikoz aipatu duela hori orain.

Michelena jaunak gaur aipatu du, gehiengoak idatzi artikuluak euskaraz irakurtzen saiatu delako eta bost minututan, ezin gehiagoan, utzi behar ukan duelako, betaurrekoak jantzirik ere, ezin eramanezkoa baitzitzaien. Frantsesezko testu bat tipografia horretan jar dadin proposatu du, zein irakurgaitz den ohar daitezen.

- Michelena jaunak kanboar zenbaitek berari egin dioten galdera bat dakar, alegia, zergatik azken denboratan, euskal botikaren aitzinean hesiak emanak diren eta noiz arte izanen diren han.

Jougleux andreak erantzun dio eliza plazan lanak egin zirenetik zenbait aldaketa egin dela aitzineko tartetan eta bereziki espaloien egiturari. Gauza da aparkalekuak espaloitik bereizteko kantailxoak daudela; kantail horiek arauetan dira erabat, baina jendeak haietan behaztopa eta erortzen dira; ez da soilik botikaren aitzinean gertatzen. Hautetsiak, bertan erori direnekin hara joan eta konturatu dira jendeak autoa aparka eta autotik jalgitzean, botikak emana duen mailari –botikak sartzeko arraplatxo bat eman baitu bertan- so egin eta ez direla kantailxoarekin konturatzen eta erortzen direla.

Herria saiatu da kantail horiek urdinez koloreztatzen; horrek eroriko gutxiago gertatzea ekarri du, baina oraindik ere erortzen da jenderik; hartara, kantail horien gainetik pasatzea debekatzea erabaki da. Jendeak autotik jalgitzean,

babesturik den pasabidera joanen dira eta han kantailik gabeko pasabidea denez, botikan segurtasunean sartzen ahalko dira.

Eskatu dugun hiri hornikuntza ekartzen diguten bitartean (zortzi aste), behin-behineko hesiak ematea erabaki dugu, inor gehiago eror ez dadin.

Jougleux andreak dio jendeak botikaren aitzinean erortzen direla.

Aiçaguerre andreak erantsi du bera La Grillandière ostatuaren aitzinean ia erori zela.

Jougleux andreak dio kokatu dituzten kantailak arauetan direla guztiz eta Herriak botikaren aitzinean hesiak jartzea jende gehienak hor erortzen ari direlako dela.

- Michelena jaunak gogora ekarri du auzapez jauna kultura batzordera joan zela, Arnaga 2016 ekitaldiaren aurrekontua aurkeztera, eta erran zuela Herriak, egiteko horretan, 44 172 € gastatu zituela. Horrek zertxobait harritu du bera, hastapenean 10 000 euroko diru laguntza eman baitzen horretarako eta azken faktura 44 172 eurokoa da, 6 419 eurotan gutxitua, Echange Pays Basque elkarteak diru zertxobait bazuelako eta diru hori eman duelako; hartara, gastua 37 753 eurokoa da, halere. Kopuru hori dakarten gastuen zati handiena erakusketa zaintzeko sasoilari gazteei ordaindu soldata dugu. 2016ko ekainaren 6ko Herri Biltzarrean, 10 000 euroko diru laguntza bozkatu zen eta, Philippe Bacardatz jaunaren galdera bati erantzunez, auzapez jaunak honako hau erran zuen: «elkarteak ordainduko dio kolektibitateari haien soldata». Orain dela bederatzi hilabete Philippe Bacardatzek egin zuen galdera berdina egin du berak, azkenean, nork ordainduko du soldata horien 29 075 euroko kopurua?

Auzapez jaunak erantzun dio jadanik azalpen guztiak ukan zituela uste zuela, baina badirudiela ez dela oso argi. Galdetu dio ea ulertu duen elkartearen irabazia, hau da, 6 419 €, langile kargaren arintzeko dela, hau da, zaintza diruztatzen parte hartzen duela elkarteak. Zaintza baitezpadakoa bilakatu da, erakusketa ez delako soilik Arnagan egin; han bada zaintza sistema bat, baina Herriak orangerira eta zalditegira hedatu nahi izan du Sistiagaren obren erakusketa. Hartara, han zaintza sistemarik ez zenez, kolektibitateak zaintza postua zertxobai indartu behar ukan zuen. Ezin ziren artista baten, batez ere gaur egungo artista baten obrak ororentzat zabal-zabalik utz, jendeen joan-jina zainduko zuen eta artistaz eta artistaren obrak argibide zertxobait eman zezakeen gutxienez pertsona bat jarri gabe. Horrek gazte zenbaiti lan egiteko aukera eman die.

Michelena jauna bat dator zaintza beharrarekin. Alabaina, orain dela bederatzi hilabete, auzapez jaunak zioen Echange Pays Basque elkarteak ordainduko zituela soldatak eta orain ikusten du Herriak ordainduko duela zati handiena eta bozkatu zuten 10 000 euroko diru laguntza llabur baino llaburrago gertatu dela Herriak bere gain hartu dituen gastuen ordaintzeko.

Auzapez jaunak erantzun dio elkarteak ez zuela inoiz agindu zaintzaren gastu osoa ordainduko zuenik. Herriari lagunduko ziola agindu zuen elkarteak eta hala

egiten du orain, operazioan irabazi duena emanaz. Aldagai bakarra dago, katalogoak, hain zuzen. Elkarrekin katalogo gehiago saltzen badu, horren irabazia Herriari emanen dio. Oraingoan, zuzen dira auzapez jaunak aurkeztu dituen kopuruak. Auzapez jaunak zehaztu du bera ez dela herri batzorde bakar batera ere joaten. Auzapezordeak eta batzordeburuak lanean ari daitezten uzten ditu eta soilik Jougleux andreak eskatu ziolako joan zen Kultura Batzordearen bilkura hartara.

- Hiriart-Urruty andreak dio bere taldeari kanboar anitzek galdetu diotela Zorhainde plazako lanei buruz. Jendeak harriturik dituzte lan horiek guztiek eta lan horien kostuaz galdetzen dute; Herriak plaza horretako estaldura guztia kendu behar ote zuen?

Magis jaunak erantzun dio, kostuari dagokionean, aitzineko Herri Biltzarretan aipatua zutela jadanik eta 200 000 € ingurukoa dela. Egitura berregiteaz, beharrezkoa bilakatu dela dio, azpiko egitura ez delako sendo. Zirkulazio eta beste arrazoiengatik, Herriak egitura berregin eta sendotu behar izan du eta zirkulazio sistema erabat aldatzen denez eta aparkalekuen kokalekua aldatu denez, estaldura altxatzea erabaki da.

Auzapez jaunak uste du, galdera horren harira, alde onak ere aipatu behar direla eta ez soilik alde txarrei begiratu. Gogoratu behar genuke saltegi baten aitzinean eraikin bat zegoela eta ikuspegia tratatzen ziola. Eraikin hura handiegia zen. Bazen autobus geldileku bateko ttattola egiazki zahar eta zatarra, Kanbo bezalako hiri batentzat lotsagarri ziren komunekin, eta Herriak hori guztia aldatu eta arrazionaltzeko baliatu ditu lanak. Komun berriak egokiak dira; autobus aterpea bide ertzean dago; taxientzako aparkalekuak izanen dira; argindar hargailuak ere bai, etortzeko den horien eskariari aitzina hartzeko; hondakinen sailkapena lurperaturik da. Horiek guztiak lan handixkoak dira; heriotzorriak kendu ditugu, plazako merkatariak beren saltegiak ezkututzen zituztela erraten baitzuten.

Auzapez jaunak uste du lan handiak izanagatik, hiribarnean direla eta leku hori oso-oso bisitatu dela, zona urdin bilakatuko dena, oztopo egiten duen autorik egon ez dadin. Herriak, lauzadaren egitura ez zela ongi jakin eta, lanik izan ez balitz bertan, erabaki zezakeen laupabost urtez uztea hala, baina behin Herriak lanak egitea erabakia zuenean, eginiko lanen gainean berriz ere lanean hasi behar ez izateko, hori baita oposizioaren kezka, eta normala da, kolektibitateak egiturari ere ekitea erabaki zuen.

Bardin jaunak erantsi du estaldura ez zela oso egoera onean. Zuhaitzen ondoko bazterrak sustraiek altxaturik zeuden. Behin plaza berritzeari ekinez gero, estaldura ere egitea ongi zen.

Magis jaunak erran du lanetarako deialdi publikoa egin zela. Dossier osoa Berrouet andre DSTarekin ikus daiteke. 200 000 euroak zentzuzkoak dira.

Hiriart-Urruty andreak erantzun dio berak ez duela halakorik erran. Orain artean aparkalekua zen; estaldura osoa aldatu da eta berriz kokatuko dira autoak.

Aparkaleku hori noiz egin zen nahi luke jakin. Kanboar anitzek galdetzen dute hori.

Bardin jaunak erantzun dio aparkalekua erabat birmoldatu dutela; ibilgailu elektrikoentzako leku zenbait izanen da, azpitik argindar sarea pasatu behar da horretarako eta, hartara, berregin behar da estaldura. Edo gutxien-gutxieneko lanak egiten dira eta hemendik laupabost urtera berriz ekin beharko zaio lekuari, edo guztia behar bezala egiten da eta luzeago iraunen du.

Jougleux andreak erantsi du Ste Elisabeth aitzineko espaloiak maldan zirela guztiz eta ezin zirela helgarritasun arauetan eman.

Irastorza jaunak adierazi du herri estadioko bus geltokietako aparkalekuan, Herriak atxiki duela estalduraren hondoa, ongi zegoelako. Herriak, gauzak bere horretan atxiki ditzakenean, hala egiten du.

Magis jaunak erantsi du aparkalekuko estaldura aspaldi egin gabe zegoela eta zehaztu du saltokien aitzinean ez dela lanik egin, berria delako.

Auzapez jaunak zehaztu du plaza horretan, azken 21 urteotan egin diren lanak argiteria publikoa eta heiotzorriak ezartzea izan direla eta azken horiek orain kenduko dituztela.

➤ Hiriart-Urruty andreak mintzaldi batekin amaitu du:

«2016ko abenduaren 5eko Herri Biltzarrean, Etxepare lizeoak sagarrondo erosketa zerbaiti loturiko diru laguntza eskeari buruzko arrapostua eskatu genizun.

Eta, horra ezusteko atsegina, nire galderaren ondorioz, herriarteko kontseilu batean, 29 sagarrondo erostea erabaki zenutela erantzun zenidan, bana herri hautetsi bakoitzarekiko, Itsasuk, Sarak eta beste zenbait herrik egin bezala.

Sagarrondoen landaketa 29 hautetsiekin eta, zergatik ez, euskararen aldeko ekintza publiko ororekin bozkariatzen diren kanboarrekin eginen zela espero genuen.

Baina ondikoz ez, ez duzue horrela erabaki!

Sagarrondoen landaketa isil-isilean antolatu duzue, gu bazter uzteko ahalegin handia eginez, gu, eskaria egin genuen oposizioko hautetsiak.

Gu, oposizio abertzaleko hautetsiok, baina beste ezeren gaineratik, euskal kulturaren aldeko elkartekide, euskara irakasle, ikastolako eta Etxepare lizeoko guraso, hastapen garaietako militante eta euskararen sustapenaren alde bete-betean engaiatuak betidanik.

Beste ezer baino lehen, komunikazio operazioa egitea erabaki duzue, zuk eta zure fidel diren zenbait hautetsik, operazio oportunistak bat, gure hizkuntzaren defendatzaile sutsu gisa agertzeko.

Baina ez gara inozo.



Euskara ez da, beste behin ere, xede politiko zikinatarako baliatu nahi dutenena.

Honako hauena da:

Euskaraz mintzatzea hautatzen dutenena

Euskara ikasteko hautua egiten dutenena

Euskara seme-alabei transmititzeko hautua egiten dutenena

Beren hurrek eskolan euskara ikas dezaten nahi dutenena

Bi kultura bakean, batak bestea jan gabe, bizi daitezkeela uste dutenena

Euskara sustatzeko politika behingoz abian jartzea erabakitzen dutenena».

Auzapez jaunak Herri Biltzarraren bilkura amaitutzat eman du 21:30ean, gai guztiak landu baitituzte jadanik eta testu eder horrekin bat eginik; ez du testua aipatu nahi, argi baita bera guztiz bat datorrela testuak dioenarekin.